

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ETXABARRI URTUPIÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, eta borondatezko epean ordaintzeko moduan jartzea 2021eko ordainagiriak

Egin delarik Etxabarri Urtupiñako etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2021eko errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesa dutenek Etxabarri Urtupiñako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek erroldan jasotako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiteko funtzioa betetzen du, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsua, edo hura amaitu ondorengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea otsailaren 1ean hasi eta martxoaren 1ean bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei martxoaren 1ean kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Etxabarri Urtupiñako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errearguarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Etxabarri Urtupiña, 2021eko abenduaren 29a

Lehendakaria

JOSÉ ANTONIO PÉREZ DE VILLARREAL FERNÁNDEZ DE BETOÑO